



## **OREDAINGO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN** **LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO** **PONENTZIAREN ALDAKETA**

### **SARRERA**

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo udalak eskatuta, betiere hiri antolaketak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hiri antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Udalerraren hirigintza garapenaren ondorioz, agian kale berriak sortu edo lehengo kaleetan atari zenbaki gehiago atera dira. Hori dela eta, beharrezkoa da haiei dagokien merkataritzako azpizona esleitzea.

Era berean, balio katalralen eta merkatuko balioen arteko desfasea antzeman da udalerriko hainbat zonatan. Hori horrela, udalerriko zona edota azpizona batzuetan balio eragingarriak berrikusi behar dira.

Horregatik guztiagatik, udalerr honetako ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

### **XEDEA**

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gainera Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Udalerriko hiri antolaketan aldaketa hauek egin dira:

- **Orendaingo eskolapioak-1 6. jarduera unitateari eta G.10 gizarte ekipamendu sistema orokorrari dagokien hiri antolaketako arauen**



**aldaketa** (Diputatu Kontseiluak 2007ko azaroaren 13an behin betiko onartua, eta GAOn 2007.11.23an argitaratua).

## **EGIN BEHARREKO ALDAKETAK**

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

**1.- Lurzoru hiritarraren mugapena aldatzen da.**

**2.- 011 zona katastralaren mugapena aldatzen da.**

### **I. ERANSKINA:**

**Lurzoru hiritarraren mugaketa plano.**

### **II. ERANSKINA:**

**Zona katastralaren plano.**